


GUGGENHEIM BILBAO



David Smith

Izarren kaiola (Star cage), 1950

Altzairu margotua eta orraztua

114 x 130,2 x 65,4 cm

The Frederick R. Weisman Art Museum, University of
Minnesota, Minneapolis.

The John Rood Sculpture Collection.

© The Estate of David Smith, VAGA, New York / VEGAP, Bilbao, 2016

“Eskultura zergatik egiten dudan galdetzen badidazu, erantzungo dizut nire bizimodua dela; nire oreka eta existitzeko daukadan justifikazioa.” David Smith, 1947–521 [1]

Bigarren mailako hezkuntza amaitu ostean, 19 urte zituela, David Smith-ek (Decatur, Indiana, AEB, 1906–Bennington, Vermont, AEB, 1965) auto-fabrika batean egiten zuen lan; bertan ikasi zuen soldatzaile eta errematxatzaile ofizioa, eta forja-lanerako baliatzen ziren tresnak erabiltzen esperientzia hartu zuen. Hala ere, bere pasiorik handiena artea zenez, 1926an New Yorkera joan zen bizitzera, hango Art Student

GUGGENHEIM BILBAO

League arte-eskolan ikasteko. Bertan, irakasleen adorearekin, bere lanetan hiru dimentsioko materialak sartzen hasi zen, eta horrela, collageak eta erliebedun obrak sortu zituen. Bere lanetan txertatzen zituen elementu horiek gero eta handiagoak ziren, harik eta, mihiseak oinarri huts bihurtu eta bere pinturak eskultura bihurtu ziren arte[2].

1929 inguruan, Smith txundituta geratu zen *Cahiers d'art* aldizkarian Pablo Picassoren burdinazko eskulturen hainbat kopia ikusi ostean. Momentu horretan errotik aldatzen da bere lana: eskultura masa nagusi baten inguruan moldatu eta zizelkatu behar zelako ideia tradizionala alde batera utzi zuen, topatutako elementuak erabiltzen hasteko, Picassoren antzera. Modu horretan, lerro eta plano desberdinez osatutako sareak sortu zituen, eta bere eskulturen muinean espazio hutsak eratzen zituen[3]. Smithek, sopleteaz gain, sutegia eta ingudea baliatzen zituen metal soldatuarekin eta aurkitutako materialekin bere eraikuntzak egiteko; horrela, ziur asko AEBn soldadura erabiliz egin ziren metalezko lehenengo eskulturak gauzatu zituen[4]. Artistak metala baliatzen zuen bai bere lan figuratiboan, bai abstraktuan ere; aurrerakuntza eta industrializazioa ordezkatzeko duen elementua zen material hori Smithentzat[5]. Espresionismo Abstraktuak batez ere pinturan eragin zuelako ustea zabalduta egon arren, zenbait eskultoreren lanek ere aurre egin zieten eskulturaren konbentzio tradizionalari, eta, horrenbestez, kategoria honetan sar daitezke. Smith da eskultore urri horietako bat.

1950eko apirilean, Smithek Guggenheim Fundazioaren beka bat jaso zuen, irakaskuntzatik eta bigarren mailako lanetatik libre uzten zuena; gainera, laguntzak eskala handiko lanak egiteko materiala erosteko aukera eman zion, eta horrek aro oso emankor baten hasiera markatu zuen. Urte hartan bertan egin zuen *Izarren kaiola* eskultura: inolako esfortzurik gabe datzan forma organiko arinaren eta lana egiteko baliatutako industria-material zurrunaren (altzairuaren) arteko kontraste nabarmena gailentzen da. Bere lanak “espazioan eraikitako marrazkiak” izan zitezkeen nahi zuen Smithek. *Izarren kaiola* eskulturan bidimentsiokotasun hirudimentsiokotasunaren arteko mugak lausotu egiten dira. Manipulatutako altzairu-hagaxkek lerroak osatzen dituzte espazioan, angelu dinamiko eta hozkekin, elkarguneetan. Elkarri lotutako hagaxkak plano bertikal eta horizontalean jarrita daude; espazioa aktibatu egiten dute eta ikuslea obran barna begiratzera daramate, espazio hutsa lanaren zati bihurtuz.

Bere eskultura elementu aktibo gisa hauteman zedin nahi zuen Smithek: espazio aldakor bat, beti mutatzeko dagoena, ikusleak sortutako artelana; hura inguratu, hartan barna eta haren ingurura begiratu eta espazio-harreman negatibo eta positiboak sortzen dituen ikusleak, alegia[6]. Lanak ez gaitu aurrez aurreko ikuspegi nagusi eta bakar batera gonbidatzen; aitzitik, aukera-sorta aldakor bat eskaintzen digu, eta lana hainbat angelutatik begiratzea posible egiten, ikusleak begiratzen duen artean handituz eta txikituz/handitzen eta txikitzen doala. *Izarren kaiola* lanak lerro- eta plano-joko bat sortzen du, izar-konstelazio bat iradokitzen duena, molekula edo astrogorputz gisa ulertu litezkeen elementu-pilaketa misterioz osatutako modelo

GUGGENHEIM BILBAO

abstraktu bat[7]. Bere lanean, Smithek izar-konfigurazioen konplexutasuna islatzen du; gaueko ortzian plano batean jarrita daudela dirudi. Kosmosa inspirazio iturritzat hartuta, konstelazio txundigarri horiek hobekien harrapatzeko aukera ematen dioten material eta metodoa hautatu zuen artistak[8].

Galderak

Begiratu *Izarren kaiola* eskultura. Zer ikusten duzu? Zein termino baliatuko zenituzke hori deskribatzeko? Nolakoa du forma? Zer da lan honetatik atentzioa ematen dizun lehen gauza?

Izarren kaiola altzairu margotu eta orraztuarekin egin zuen Smithek. Zerekin lotzen duzu altzairua? Zein ezaugarri ditu material horrek? Zein ezaugarri iradokitzen dizkizu? Zein teknika uste duzu baliatu zituela artelana eraikitzeko? Azaldu itzazu artistak jarraitutako pausuak. Zergatik uste duzu erabaki zuela eskulturaren atal bat margotzea?

Smithentzat altzairuak aurrerakuntza eta industrializazioa esan nahi zuen. Zergatik uste duzu aukeratu zuela material hori? Zer uste duzu transmititu nahi zuela lan honekin? Bere artelanak zizelkatu edo landu ordez, hainbat pieza soldatzen zituen Smithek, garai hartako hiru dimentsioko artearen konbentzioei muzin eginda. Zein abantaila eta desabantaila aurkitzen diozu bere lan egiteko moduari?

Smithek altzairu soldatuarekin egiten zuen lan bere hitzetan “espazioan eraikitako marrazkiak” zirenak sortzeko[9]. Zein da, zure ustez, marrazkiaren eta eskulturaren arteko harremana? Bere lanekin Smithek espazioa marraztea lortzen duela uste duzu? Nola?

Jarduerak

Izarren kaiola

Lanaren izenburuan inspiratuta, marraztu ezazu DIN-A4 batean zure *Izarren kaiola* propioa. Saia zaitez lerro soilekin bakarrik marrazki bat sortzen, jarri arreta berezia zure lanari eman nahi diozun oreka, forma eta adierazkortasunean. Ez du zertan marrazki figuratiboa izan, zure imajinazioa aske utzi dezakezu.

Sortu zure marrazkia espazioan

Marrazkia funtsezkoa da Smithen jardunean. Haren eskulturetako askok estudioaren lurrean klarionaz egindako marrazkietan izan zuten jatorria; lur hartan bertan barreiatzen zituen Smithek metalezko elementuak soldatu aurretik.

GUGGENHEIM BILBAO

Zure *Izarren kaiola* oinarritzat hartuta, zabaldu eta batu pipa garbitzeko alanbreak lerroan gainean, egitura itxi bat osatu arte. Altxatu itzazu alanbreak paperatik eta behatu ezazu emaitza. Nahi baduzu, gehitu lerro berriak edo aldatu aurretik ezarritakoak. Gainera, zure lanarekin amaitzeko, objektu txikiak edo aurkitu dituzun materialak itsatsi ditzakezu. Bilatu ezazu oinarri bat zure eskultura muntatzeko.

Behatu eta alderatu

Espressionismo Abstraktua pinturarekin lotu ohi da, baina fenomeno horrek hainbat eskultore ere barne hartzen ditu, haien lanak aurre egin baitzion eskultura-praktikaren konbentzio tradizionalari. David Smith da talde horretako kideztzat jotzen den eskultore urrietako bat. Ikertu itzazu garai hartako beste eskultore batzuk eta alderatu Smithekin. Zeintzuk dira horien artean dauden antzekotasun eta desberdintasunak? Zer antzekotasun eta zer desberdintasun dituzte mugimenduko margolarien artean? Egin ezazu alderaketa-koadro bat taldean eta aurkeztu ezazu klasean.

Oharrak

1. <http://pastexhibitions.guggenheim.org/smith/overview.html>
2. <http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/david-smith-sculptures/david-smith-sculptures-room-guide/david-smith>
3. <http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/david-smith-sculptures/david-smith-sculptures-room-guide/david-smith>
4. <http://www.davidsmithestate.org/chronology.html>
5. <https://royal-academy-production-asset.s3.amazonaws.com/uploads/eb5b2082-2f60-4ca3-892b-8bec8dec4520/Primary+-+Digital+Resource.pdf>
6. <http://www.artcritical.com/2006/03/01/david-smith-a-centennial/>
7. <http://www.artcritical.com/2006/03/01/david-smith-a-centennial/>
8. <http://www.arttimesjournal.com/art/reviews/oct 1 16 ina cole/david smith star cage.html>
9. <https://royal-academy-production-asset.s3.amazonaws.com/uploads/ed9eb3a2-fa72-4be4-9441-9b41c43acab2/ABSTRACTEXPRESSIONISM EGvF2.pdf>

Hiztegia

Espressionismo Abstraktua: Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean AEBn sortu zen arte-fenomenoa izan zen. Korrante horren parte ziren autoreen lanek emozioaren bat-bateko adierazpena islatzen dute, errealitate fisikoa irudikatu edo hari erreferentzia zuzenik egin gabe.

GUGGENHEIM BILBAO

Esteka

<http://www.davidsmithestate.org/candida%20fields%20photos/fields.html>

http://www.davidsmithestate.org/candida%20fields%20photos/9850.015neg lg_cr.html

<http://www.artcritical.com/2006/03/01/david-smith-a-centennial/>

<http://pastexhibitions.guggenheim.org/smith/highlights7.html>

<http://www.tate.org.uk/whats-on/tate-modern/exhibition/david-smith-sculptures>